

IKASLEEN TXOKOA - Langile Ikastola

ZERGATIK DAUDE HAINBESTE
PUNTU BELTZ
GURE HERRIAN?



Hiri debekatuaren mapa

3. maila - Langile ikastola / II

Igande gaueko tabernetako giroa / II

Maitane Benito, Haizea Aguilar



Pirritx eta Porrotx

20 urte gure artean / III

Ziortza Irazustabarrena eta Haizea Etxarri

III/ AITZOL ARRIETA eta IBON OCAÑA

«Saskibaloian serio jokatzeko, beste talde batzuen aurka, 5. mailan hasi ginen»

Xabi Azaldegi, Endika Garmendia eta Beñat Agirrezabala



LIBURU KRITIKA / IV
Memorias de Idhún



EGILEEN ARGAZKIA / IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

Hiri debekatuaren mapa

“Hiri Debekatuaren Maparen bidez, kalea denon gustukoa eta segurua izatea lantzen da”

HIRI Debekatuaren Mapa egitasmo berritzailea da, eguneroko kale elkarbizitza hobetzeko proiektua da. Parte hartzaileen bitartez lortzen dira emaitzak, gai ezberdinak -oztopo arkitektonikoen jabetzea, erosotasuna, espazioaren erabilera, beldurra, lasaitasuna, biolentzia, ongizatea eguneroko bizitzan...- lantzen direlako.

Proiektu honetan, emakumeek parte hartu, iritziak eta proposamenak jaso eta, ondorioz, horien aldeko apustua antolatzen dute.

Azken finean, Hiri Debekatuaren Maparen bidez, kalea denon gustukoa eta segurua izatea lantzen da. Eta guk horretarako aukera izan dugu gure ikastetxean.

Gure ikastolan, orain arte, bi saio egin ditugu, bakoitza bi ordukoa. Lehendabizikoa aurkezpen modukoa izan zen. Hernaniren eraldaketak zeintzuk izan diren historian zehar azaldu ziguten eta hiri, herri edo auzo batean aurki daitezkeen oztopoak aipatu genituen. Honetaz jabetzeko, bi saioen arteko egunetan argazki batzuk ateratzeko eskatu ziguten, eta hauek herrian ustez arriskutsuak, ilunak, isolatuak, bakartiak... diren kale, parke, txokoak...



Ikasleek egindako murala, Hernaniko mapa eta euren aipamenekin.

agertu behar genituen.

Bigarren saioan, Hernaniko plano handi baten gainean, egindako argazkiak erantsi eta bakoitzak iradokitzen zigunaz azalpen, iruzkin eta komentarioak idatzi genituen taldeka, leku bakoitzak dituen zailtasunak, oztopoak eta arazoak aipatuz. Ondorioz, emakumeak arazo gehiago dituela ohartu ginen.

Azkenik, neska-mutlak bereizitako saioak egin genituen: autodefentsako ikastaro bat, neskek; sent-

sibilitatearena, mutilek, sexismoaren kultura, sexuen arteko berdintasunaren kontzientzia lortzeko. IRITZIA:

Lehen saioan, bi orduko hitzaldia izan zenez pixka bat aspertu ginen. Bigarren saioan, horma-irudia egiten aritu ginen eta dibertigarria izan zen. Eta autodefentsako azken saioak oso dibertigarriak izan ziren eta oso ongi pasa genuen.

3. MAILA
Langile ikastola



23

zenbakia

Igande gaueko tabernetako giroa

IGANDE ilunabarrak tristeak izan ohi dira. Hernanin, berriz, beti izan da giroa. Garai batean, Tilosetan dantzaldia izaten zen. Dantzaldi mota hori modaz pasa zenean, Oialumeko dantzalekua jarri zuten ilunabar gauetan. Gaur egun, jendea tabernetan biltzen da.

Beste toki edo hirietan, ostiral edo larunbat gauean ateratzen da jendea. Hernanin, ordea, ohikoa da igande gauean ateratzea.

Igande gaua Hernanin jende gehien izaten den eguna dela nabarmena da. Toki askotako jendea etortzen da: Donostiatik, Tolosatik, Lasartetik...

Kardaberaz kaleko tabernak dira jendez itota egoten direnak: Leoka, Atxur, Haida...

Jendea zazpiak aldera hasten da etortzen eta zortzietarako jendez gainezka sumatzen da kale giroa, goizeko ordubiak aldera arte.

Adin desberdinetako jendea izaten den arren,

elkartzen direnak, gehienetan hamabost urtetik gorakoak izaten dira eta honek markatzen du giroa; izan ere, adin tarte batean ez dago taberna batzutura sartzerik.

Atxur tabernan, adibidez, 16 urtetik gorako adina eduki behar duzu sartzeko, orduan jende gazteena beste tabernetara abiatzen da.

ra abiatzen da.

Musika motak ere badu zerikusia nora jo eta nora ez erabakitzean, guztiak ditugulako aukeran: rock, pop, timba, bumping...

MAITANE BENITO,
HAIZEA AGUILAR
Langile ikastola

AITZOL ARRIETA eta IBON OCAÑA - Hernaniko saskibaloia taldeko jokalaria eta entrenatzailea

Aitzol Arrieta: «Saskibaloian serio jokatzeko, beste talde batzuen aurka, 5. mailan hasi ginen»

AITZOL Arrieta Hernaniko saskibaloia taldeko jokalaria da, jubenetan. Talde hau jokari baten ikuspuntutik ezagutzeko Aitzol elkarrizketatu dugu, bere gustuko jokoak, jokariak, entrenatzaileak, etab. zeintzuk diren jakiteko.

Beste ikuspuntu batetik ikusteko, Ibon Ocaña taldeko entrenatzailea ere elkarrizketatu dugu. Berari antzeko galderak egin dizkiogu, baina batzuetan estuasun batean jarri dugu galdera pertsonalak eginez bere taldekideei buruz.

Zein da zuen entrenatzaile gustukoena?

Aitzol: nire entrenatzaile gustukoena da: Ibon Ocaña.

Ibon: nirea DKV taldeko entrenatzailea da, Aito Garcia Reneses.

Zein jokari duzue gustukoena ACB ligatik? Eta Estatu Batuetako NBA ligatik?

Aitzol: ACB ligako nere jokari gustukoena Tau Baskoniako Luis Scola da eta NBAtik Los Angeles Lakerseko Kobe Bryant.

Ibon: ACB ligatik DKVko Rudy Fernandez, eta NBAtik New Orleans Hornets eko Peja Stojakovic da.

Zure ekipoko zein jokari duzu gustukoena?

Ibon: Vincen dut gustukoena nire ekipotik.

Zein duzue gustukoena NBA ala ACB?

Aitzol: NBA dut gustukoena ikusteko.

Ibon: Nik berriz ACB dut gustukoena.

Zenbat partidu irabazi dituzue denboraldian zehar?

Aitzol: Uste dut 7-8 partidu irabazi ditugula denboraldian.

Zein partidu izan da zailena zuentzat? Eta errazena?

Aitzol: Cafes Aitonaren aurkako partidua zailena, eta errazena Goierriren aurkako.

Jokari baten batek izan al du lesio zailen bat denboraldi honetan?

Ibon: Bai Iñigo Alzelaik izan zuen lesio zail bat.

Zergaitik aukeratu zenuen saskibaloia eta ez beste edozein kirol?

Ibon: Kirol hau gehien gustatzen zitzaidalako beste guztiakin alderatuz.

Ikusteko zein duzue nahiago saskibaloia ala futbola?

Aitzol-Ibon: Saskibaloia dugu gustukoena, duda izpirik gabe. **Noiz hasi zineten saskibaloian jolasten zu eta zure lagunak?**



Hernaniko jubenetako saskibaloia taldea, aurtengo denboraldian.

Aitzol: Serio jolasten 5. mailan hasi ginen beste aurkarien aurka.

Zein ekipo duzue gustukoena ACB ligatik? Eta NBA ligatik?

Aitzol: ACB ligatik Tau Baskonia eta NBA ligatik Toron-

to Raptors ditut gustukoena. Ibon: ACB ligatik DKV Jovenut eta NBA ligatik Portland Trail Blazers ditut gustukoena. **Zein kirol dituzue gustukoena saskibaloiaz gain?**

Aitzol: Nik futbola dut gustukoena saskibaloia kenduta.

Ibon: Nik, ordea, tenisa dut gustukoena saskibaloia kenduta.

XABI AZALDEGI,
ENDIKA GARMENDIA
ETA BEÑAT AGIRREZABALA
Langile ikastola

Pirritx eta Porrotx: 20 urte gure artean

PAILAZO taldea 1987. urtean sortu zen. Jende aurreko beren lehen agerraldia Lasarte-Oria herrian egin zuten, herri horretako eskolen artean urtero antolatutako ohi den Olentzeroren jaialdiaren barruan.

Pirritx eta Porrotx pailazoak, Euskal Herrian ibiltzeaz gain, Nikaragua eta Kubara ere joan dira ekitaldiak egitera.

"Maite zaitut" Pirritx eta Porrotx-en kanta arrakastatsuenetarikoa bihurtu da, oso ezaguna egin da Euskal Herri osoan. Nahiz eta haurrentzako kanta dirudien, adin guztientzako kantua bilakatu da, ia toki guztietan entzun baitaiteke bai irratan, bai taberna askotan, bai jaialdietan, bai herriko festetan...

Pirritx eta Porrotx pailazoek kanta bat eskaini diote Korrika 15i, Korrika Txikirako ekarpen moduan. *Txis pun! Korrika!* du izena kantak eta ohikoa den moduan, umeak gogoan dituztela sortu dute. *Txis pun! Korrika!* kantarekin Korrika pasatzerakoan sortzen diren une kilikagarrienak islatu nahi izan dituzte Pirritx eta Porrotxek: "Denbora gutxian emozio handia eta urduritasuna bizitzen dira, eta hori islatu nahi izan dugu: ilusioa, urduritasuna, erritmoa..."

ZIORTZA IRAZUSTABARRENA
ETA HAIZEA ETXARRI
Langile ikastola



Pirritx eta Porrotx pailazoek 20 urte daramazkete ikuskizunean.

23

zenbakia

ikasleen txokoa

LIBURU KRITIKA

‘Memorias de Idhún’

Memorias de Idhún Laura Gallegok idatzitako liburu bilduma arrakastatsua da. Bilduma hau hiru liburuz osatua dago:

- 1- La Resistencia
- 2- Triada
- 3- Panteón

Liburuak ukitu fantastikoa du. Bertan dragoiak, unikornioak eta shek-ak (suge hegalaria) agertzen dira. Baina animalia mitologiko hauek agertzeak ez du esan nahi haurrentzako liburua denik, baizik eta gazteen-

tzakoa, 15 urte ingurukoentzako.

Nondik norakoa

Jack ez da mutil normala. bere gurasoak hil ondoren Lur planeta ez den beste mundu batean agertzen da. Bertan Victoria ezagutzen du eta biak beraien benetako izaera bilatu beharko dute. Istorio honetan hiru protagonisten arteko amodioa ere agertzen da.

Oso liburu interesgarria da. Fantasia gustatzen ez zaion jendeari polita irudituko zaio maitasuna, lagun-

tasuna... agertzen direlako. Liburua irakurtzea merezi du jakin mina ondo mantentzen duelako eta istorioa ondo lotuta dagoelako.

www.idhun.net

Liburu hauei buruz gehiago jakin nahi baduzue irakurri itzazue liburuak edo bere web orrialdean sartu: www.idhun.net

LEIRE GIGANTO ETA
ANE IRADI
Langile ikastola



Memorias de Idhún liburuaren portada.



Langile ikastolako 3. mailako ikasleak, gaurko Ikasleen Txokoaren egileak.